Bestelako Xedapenak

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3432

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 1ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, ekintza humanitarioko estrategia markoen finantzaketa-linearentzako laguntzak -garapenerako lankidetzaren kargurakoak- ebazten dituena, eta estrategia marko bakar bati ere eman ezin izan zaion zenbatekoa finantzaketa-linea iraunkorrari ematea erabakitzen duena.

Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (2008ko otsailaren 27ko EHAA, 41. zk.), urtero egingo da laguntza horietarako deialdia, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu baten bidez. Nolanahi ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta martxan jarri ondoren, garapenerako lankidetzari dagokion jarduera-eremua Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitu ondoren, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko ente publikoa Lehendakaritza Sailari atxiki ondoren, deialdi hau egiteko eskumena duena Lehendakaritzako idazkari nagusia da.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikuluan eta erakunde horren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza horiek kudeatzeko eta horretarako beharrezkoak diren ebazpenak emateko eskumena Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak du.

2011ko martxoaren 9an Ebazpena eman zuen Lehendakaritzako idazkari nagusiak, 2011rako garapena eta lankidetza sustatzeko funtsaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzen deialdia egiteko (2011ko martxoaren 21eko EHAA, 55. zk.). Ebazpen horren arabera, 1.904.819 euro esleitzen zitzaizkion finantzaketa iraunkorreko lineari, eta ekintza humanitarioko estrategia markoen finantzaketa-lineari, berriz, 2.400.000 euro (ordainketa: % 50 2011n, eta beste % 50a 2012an).

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, jasotako

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

3432

RESOLUCIÓN de 1 de junio de 2011, de la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, por la que se resuelve la concesión de ayudas de la línea de financiación de las estrategias-marco de acción humanitaria con cargo a la cooperación al desarrollo, y se acuerda destinar a la línea de financiación permanente el importe que no ha podido ser asignado a ninguna estrategia-marco.

De conformidad con lo establecido en el artículo 4 del Decreto 31/2008, de 19 de febrero, por el que se regulan las ayudas a acciones humanitarias con cargo a la cooperación al desarrollo, la convocatoria de ayudas se realizará anualmente mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales (BOPV n.º 41, de 27 de febrero de 2008). No obstante, tras la creación, regulación y entrada en funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, así como tras la asignación a la Presidencia del Gobierno del área de actuación consistente en la cooperación al desarrollo y la adscripción a dicha Presidencia del ente público de derecho privado Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, la competencia para realizar esta convocatoria corresponde al Secretario General de la Presidencia.

En cuanto a la gestión de las citadas ayudas y resoluciones que hayan de dictarse a tal efecto, conforme a lo dispuesto en el artículo 11.2 de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo; y artículo 11.1 del Decreto 95/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y funcionamiento de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, la competencia corresponde a la Directora de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Con fecha 9 de marzo de 2011, se dicta la Resolución del Secretario General de la Presidencia, por la que se convocan ayudas a acciones humanitarias con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para 2011 (BOPV n.º 55, de 21 de marzo de 2011), destinando a la línea de financiación permanente la cantidad de 1.904.819 euros, y a la línea de financiación de las estrategias-marco de acción humanitaria la cantidad de 2.400.000 euros (a abonar el 50% en 2011 y otro 50% en 2012).

Conforme a lo dispuesto en los artículos 28 y 29 del Decreto 31/2008, de 19 de febrero, se procederá

eskabide guztiak baloratuko dira, eta puntuaziorik handiena lortzen dutenek jasoko dituzte laguntzak, betiere, finantzaketa-linearen diru-hornidura agortu arte. Nolanahi ere, ekintza humanitarioko estrategia-marko bakar bati ere diru-zenbatekorik ematerik ez bada –behar adina estrategiek eskatutako gutxieneko puntuaziorik lortu ez dutelako, eskatutako baldintzak betetzen ez dituztelako, edo dagoen aurrekontu-hornidurarako adina eskabide jaso ez direlako–,diru-zenbateko hori finantzaketa iraunkorreko lineari eman dakioke, aipatutako dekretuaren 20. artikuluaren arabera.

Balorazio- eta instrukzio-prozesua amaitu ostean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektoreak 2011ko maiatzaren 27ko bilkuran egindako proposamenez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Estrategia-markoen finantzaketa-linearen laguntzak –otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuan arautu eta 2011ko martxoaren 9ko Ebazpenaren bidez deitutakoak– ebazpen honen eranskinean ageri diren entitateei esleitzea (laguntzen zenbatekoa eta helburua eranskinean jasota daude).

Bigarrena.– Finantzaketa iraunkorreko lineari ematea estrategia-markoei esleitu izan ezin zaien zenbatekoa, 150.841,71 euro, hain zuzen ere. Zenbateko hori hasierako aurrekontu-hornidurari gehituz gero (1.904.819 euro), guztira, 2.055.660,71 euroko diru-hornidura dago finantzaketa iraunkorreko linearako.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa jarri eta hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, eta administraziarekiko auzietako bidea zabalik gelditzuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 1a.

Garapenerako Lankidetzaren
Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

a la valoración de las distintas solicitudes recibidas, resultando beneficiarias aquéllas que han obtenido una mayor puntuación hasta agotar, en su caso, la dotación de esta linea de financiación. No obstante, conforme al artículo 20 del citado Decreto, el importe que no pueda ser asignado a ninguna estrategia-marco de acción humanitaria al no alcanzar el número suficiente de éstas la puntuación mínima exigida, o por no reunir los requisitos exigidos, o por no haberse recibido suficientes solicitudes para la dotación presupuestaria disponible, podrá destinarse a la línea de financiación permanente.

Una vez finalizado el proceso de valoración e instrucción, y, a propuesta del Consejo Rector de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, reunido el 27 de mayo de 2011.

RESUELVO:

Primero.– Adjudicar las ayudas de la línea de financiación de las estrategias-marco, reguladas en el Decreto 31/2008, de 19 de febrero, y convocadas por Resolución de 9 de marzo de 2011, a las entidades recogidas en el anexo a la presente Resolución, por el importe y finalidad que se indican en el mismo.

Segundo.– Destinar a la línea de financiación permanente el importe que no ha podido ser asignado a ninguna estrategia-marco y que asciende a 150.841,71 euros, cantidad ésta que tras ser sumada a la dotación presupuestaria inicial (1.904.819 euros) resulta un total de 2.055.660,71 euros de dotación para la línea de financiación permanente.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante el Presidente de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Si transcurriesen tres meses desde la interposición del recurso de alzada sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado, quedando expedita la vía contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2011.

La Directora de la Agencia Vasca
de Cooperación para el Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.

ERANSKINA / *ANEXO*

Erreferentzia *Referencia*	Entitate eskatzailea *Entidad Solicitante*	Izenburua *Título*	Zenbatekoa *Importe*	Herrialdea *País*
EHE-2011BA/0001	ACNUR Euskal Batzordea	Ayuda Humanitaria en las Provincias del Este de la República Democrática del Congo: reintegración de refugiados/as congoleños/as en RDC. Prevención de la violencia y explotación.	768.000,00 €	Kongoko Errepublika Demokratikoa *República Democrática del Congo*
EHE-2011BA/0002	Fundación Alboan	Programa de apoyo a la educación formal, alfabetización de mujeres y atención a vulnerables de la población desplazada en el territorio Masisi, Nord Kivi.	790.703,58 €	Kongoko Errepublika Demokratikoa *República Democrática del Congo*
EHE-2011BA/0003	Fundación Save The Children	Promover y defender los derechos de la infancia a través del fortalecimiento del sistema educativo y del tejido comunitario en el distrito de Ituri.	539.613,00 €	Kongoko Errepublika Demokratikoa *República Democrática del Congo*